

Jaun-andreok;

Pozgarria da Euskaltzaindiarentzat, euskararen akademiarentzat, berriro ere Eusko Legebiltzarrean hartua izatea, Autonomia Erkidegoan dugun ordezkatzeko erakunderik goimailakoena baita Eusko Legebiltzarra. Pozgarria, besteak beste, gaur Autonomia estatutuan diren bi erakunde ofizial biltzen baitira euskarari dagokionez.

Izan ere, aspaldikoak dira Eusko Legebiltzarraren eta Euskaltzaindiaren arteko harremanak. Halakoxeak gorpuztu dira lankidetzarako hitzarmenetan eta horiek ekarri dituzten emaitzetan: funts kulturalen elkar trukaketak, bi erakundeen biblioteken arteko harremanak, argitalpenak, erakusketak... ez dira bazterrean uztekoak. Bat aipatzearen, Euskararen eta Etxepareren inguruan, Eusko Legebiltzarraren 30 urte zirela eta, orain dela urtebete pasatxo antolatu zena.

Horietan guztietan harreman instituzionalak argi erakutsi dizkigute gure bi erakundeen arteko adostasuna eta lanerako gogoia, betiere, euskara eta euskal gizartea izan dugula helburu.

Orain aldi berri bat irekitzen da Eusko Legebiltzarrean eta Euskaltzaindian ere, zuzendaritza berri batek bere ibilbideari ekiten dio.

Hartara, izan dadila ekitaldi hau elkarrekiko bide horretan mugarria, elkarrekin lanean jarraitu dezagun eta azkenean, ahaztu ez dezagun, norik bere iritziei muzin egin gabe, gizarteari zor diogula lan hori, eta gizarte horretan euskara eta euskal kultura tinko sustraiturik daudela.

Garai zailak bizi arren ekonomiaren aldetik, itxaropen berriak ditu gure gizarteak. Horietan ere lagundu dezake euskarak eta horietan ere laguntzeko prest dago Euskaltzaindia, euskararen akademia, behinola lortu zen euskararen ofizialtasuna berriro ere pizgarri izan dadin zeregin horietan.

Mila esker, beste behin ere, Eusko Legebiltzarraren buruari, gaur gu hartu ez ezik, erraztasunak ere eman dizkigulako eraikin eder honetan Euskaltzaindiaren zuzendaritzaren lan bilera egiteko eta gonbitea, zu zeu, buru andrea eta Eusko Legebiltzarraren mahaia ere gure etxea bisita dezazuen, herri honen erakundeen arteko loturak eta estekadurak indartzeko seinale gisa.

Esan dut,
Andres Urrutia
euskaltzainburua